

4. GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA

4.1 Programaren ezaugarri nagusiak

Programaren definizioa egiteko, bere ezaugarri nagusietako hiru hauek kontuan hartuko ditugu:

- a) esku hartzeko oinarrizko estrategiak (hezkuntza eta gizarte lana);
- b) nori zuzenduta dagoen (arrisku eta moldagabezia egoeran dauden adingabeak, bereziki aurrenerabe eta nerabeak);
- c) eginkizunen arabera kokapena (komunitateko gizarte zerbitzuak).

Programaren xedea da herritar aktiboak sustatzea, adingabeekin batera kudeatutako programen bitartez, gazteekin batera egindako autogestio programen bitartez, eta adingabe eta gazteek beraien hezkuntzako prozesuan parte hartuz, beti ere elkarri lagunduta eta gizarte lankidetzaren ikuspuntutik.

Gorago esan dugun bezala, Kontsortzioko programen helburuen arabera, bi programa mota daude:

- Lan egiteko gaitasunak eskuratzera bideratutako programa espezifikoak (prestakuntza okupazionalako programak)
- Gizarte betebeharrak eta eginkizunak betetzeko gaitasunak eskuratzera bideratutako programa orokorrak (heziketa konpentsatorioko programak, zentzu zabalean).

Bestalde, gizarte zerbitzuen barruan dauden programak hurrengo moduan sailka daitezke, bi irizpideri jarraiki¹:

1. Elkarren ondoan bizi diren marjinatutako herritar multzoei zuzendutako programak (erabiltzaile guztiak baztertze edo arrisku edo antzeko egoeran daude, baina ezaugarri ezberdinak dituzte adina, sexua, minusbaliotasun, eta abarren arabera)
 2. Marjinatutako herritar multzo espezifikoari zuzendutako programak
 3. Herritar guztiei zuzendutako programak. Programa horiek herritar multzo espezifikoari egokitutako ezaugarriak dituzte
-
1. Pertsonekin esku hartutako zuzendutako programak
 2. Pertsona eta baliabideekin esku hartutako zuzendutako programak
 3. Pertsona, baliabide eta sistemekin esku hartutako zuzendutako programak

Sailkapen horiek kontuan hartuta, Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa era honetan defini daiteke:

- a) gizarte betebeharrak eta eginkizunak betetzeko gaitasunak eskuratzera bideratutako programa da;
- b) bereziki aurrenerabe garaia eta nerabezaroa hartzen ditu;
- c) marjinatutako herritar multzo espezifikoari zuzendua da (arrisku eta moldagabezia egoeran dauden adingabe, gazte eta familiak);

¹ Fernando Fantovak egindako sailkapena da, gizarte zerbitzuetan kudeaketa ereduari buruz EDE Fundazioarekin elkarlanean egindako ikerketa proiektuaren barruan

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- d) pertsona, talde eta baliabideekin jarduten du²;
- e) normalizatutako baliabideez lan egin nahi du (herritar guztientzat direnak);
- f) era horretan, normalizatutako baliabideak arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriei egokitzeko asmoa du.

Maila lokaleko sistemen arteko koordinazioa helburu eta, aldi berean, programa garatzeko baldintza da.

Inguru Irekiko Hezkuntzako Planak, bestalde, herritar guztiei zuzendu eta herritar multzo espezifikoiei egokitu diren, eta pertsona, baliabide, eta sistemekin batera esku hartzen duten heziketa konpentsatorioko proiektu eta programak bultzatu nahi ditu.

Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programak, hortaz, onartzen du ekintzen eskaintzak izaera iragankorra eduki behar lukeela adingabe eta gazte talde bakoitzarekin. Ildo horretan, Kontsortzioak gutxiengo etnikoiei zuzendutako programak berriro bideratu ditu, eta lehendik zeuden programak baino zabalagoa den zeharkako arreta sustatu du.

Programak esku hartzen du banakoarekin, taldeekin eta komunitatearekin, baina bereziki hezkuntza izaera nabarmena duten baliabideekin (baliabide publiko edo komunitarioak, gizarte eta hezkuntzakoak eta soziokulturalak, hezkuntzako eta kulturako sistemetakoak), eta beste zerbitzu sistemetako programetan (batez ere osasun arloko heziketan, osasun sistemaren barruan).

Era horretan esku hartuz, hurrengo zerbitzuak eskaintzen dira:

- 1) Informazioa, orientazioa eta deribazioa
- 2) Hezkuntzan esku hartzea banaka eta taldeka
- 3) Bitartekotza (baliabide normalizatuera igarotzea eta egokitutako baliabideak sortzea edo baliabideak egokitzea)
- 4) Gizartea sentsibilizatzea

Lehenengo bi zerbitzuen hartzaileak arrisku egoeran dauden adingabe, gazte eta familiak dira.

Hirugarrenaren hartzaileak arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak nahiz lehendik zeuden baliabide normalizatuak dira; baita ere, gizarte edo astialdiko boluntarioak, edo normalizatutako eta egokitutako baliabideren bati ekin nahi dioten nerabe edo gazteak.

Laugarrenaren hartzaileak herritar guztiak dira, edo azpitalde espezifikoak.

Ikusten denez, kaleko hezitzaileen zerbitzuak komunitateko gizarte zerbitzuei dagozkien arretako oinarritzko lau alderdien barruan sar daitezke; lau alderdi horiek lau programa klasikoak arabera dira (informazioa-balorazioa-orientazioa; familia eta elkarbizitza; prebentzioa eta gizarteratzea; sustatzea eta lankidetzaren soziala).

² Dena den, garrantzitsua da sistemetan aldaketak bultzatzea Kontsortziotik.(Inguru Irekiko Hezkuntzako Plana).

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Kaleko hezitzaileek esku hartu ahal izateko, beharrezkoa da komunitateko gizarte zerbitzuei –modu batera edo bestera– lotutako irudi profesionalen lankidetzaz, eta, orokorrean, udaleko gizarte zerbitzuetan arrisku eta moldagabezia egoeran dauden adingabe eta familiekin jarduten duten profesionalen lankidetzaz, eta funtzionario, lan kontratuko langileak diren, edo etxeko laguntzan, familia heziketa eta terapian, kaleko heziketan, eta abarretan ari diren zerbitzu enpresetako langileak diren alde batera utzita.

Gainera, Inguru Irekiko Hezkuntza Planetik, pixkanaka, esku hartzea departamentuen artekoa eta erakundeen artekoa izan dadin bultzatu nahi dugu, udaletako kultura eta gazteria departamentuetako eta maila lokaleko beste zerbitzu sistemetakiko profesionalekin, hezkuntza sistemakoekin bereziki, lehendik zegoen elkarlana indartuz.

Aipatutako profesionalak zein hezkuntzako baliabide ez formaletako boluntarioak ere hezkuntzako eskuartzearen eragileak dira (ez Programarenak), eta era berean, familia, bizilagunak, eta orokorrean gizartekotze eragile guztiak. Kontuan hartu behar da haiek direla, aurrerago zehaztuko dugunez, ingurune normalizatueta txertatzeko eta gaitasunak garatzeko helburuei eusten dietenak.

Jarraian, Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren ezaugarri diren alderdiak, jadanik aipatutakoak eta beste batzuk, aurkeztuko ditugu.

4.2. Programaren xedea (helburua eta hartzaileak)

4.2.1. Helburua

Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programak arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak zerbitzuetako baliabide normalizatueta (herritar guztiei zuzenduak) zein beste ingurune batzuetan (familia, kidekoen taldea) “txertatzea” du helburu.

Txertatzea, Programaren ikuspegitik, hauex da: adingabe eta gazteek era egonkorrean parte hartzea baliabide eta inguruneetan, eta kale hezitzaileen eskaintzaren barruan eskuratutako ezagupen, gaitasun, jarrera eta interesak transferitzea, orokortzea eta garatzea.

Adingabe eta gazteek baliabide eta inguruneetan parte hartzeaz gain, baliabide eta inguruneek izaera konpentsatzailea (sustatzailea) ere eduki behar dute, eta ezagupen, gaitasun, jarrera eta interesen garapena bultzatu behar dituzte.

Arrisku edo moldagabezia egoeran dauden adingabe eta gazteei zuzendutako kaleko hezitzaileen eskuartzearen bitartez, jarduerak eskaintzen diren ingurunean adingabe eta gazteek ezagupen eta gaitasunak eskuratu eta jarrera eta interes orokor eta espezifikoak garatzea lortu nahi dugu; horrek guztiak adingabe eta gazteak beren inguruneetan txertatzea bultzatuko du (familia, harremanetako sare informalak –kidekoen taldea, bizilagunak–, hezkuntzako ikastetxe formalak, hezkuntzako baliabide ez formalak, e. a.).

Gizarteratzea beste baliabide eta ingurune batzuen helburua ere bada.

Baliabide normalizatueta eta gizarte eta astialdiko boluntarioekin esku hartzeak baliabide egokituak lortu nahi ditu, lehendik daudenak egokituz edota baliabide berriak sortuz.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen familiekin edo elkarbizitzako unitateekin esku hartzea oso mugatuta dago; zaintzaile nagusien helburua hezkuntzako oinarritzko portaerak garatzea da (oinarritzko ohiturak –ordutegia, higiea eta elikadura, ikastea–), eta adingabe eta gazteekin dituzten harremanak (elkarrekin ematen duten denbora, jarduerak familian askotarikoak izatea), eta ikastetxe eta komunitatearekin dituztenak hobetzea.

Herritarrekin orokorrean edo azpitalde espezifikoeekin esku hartzeak arriskuan dauden adingabe eta familien bizi-baldintzei buruz ohartaraztea du helburu, eta halaber, herritarren erantzunak bultzatzea (herritarrek elkarrekin antolatuz egon ala ez) eta horiek hezkuntzako eragile gisa edo gizartekotzean duten papera indartzea.

Kaleko hezitzaileen lana baloratzeko, hurrengo puntuak aintzat hartu behar dira, funtsean:

- adingabe eta gazteek ezagupen, gaitasun, jarrera eta interesak garatzea, jarduerak eskaintzen diren inguruan;
- baliabide eta inguruneetan sustatutako egokitzapenak, edo sortutako baliabide egokituak;
- adingabe eta gazteek baliabide eta inguruneetan parte hartzea, unean uneko parte hartzea bada ere;

Gizarteratzeak –definitu dugun moduan– kaleko hezitzaileen eta baliabide eta inguruneen helburua izan behar du, eta bertan adingabe edo gazteak parte hartu behar du. Horrez gain, baliabide eta inguruneek egindako lana baloratzeko aukera ematen du, funtsean.

Programak ez du **lan munduratzeko** eta **gizarteratze arloetan**, zentzu zabalean, emaitzarik lortu nahi (hezkuntza, kultura, osasun, enplegu, etxebizitza, ...), horiek zerbitzu sistemen, gizarte politika zabalagoaren, eta gizarte eragileen erantzukizuna baitira. Programaren helburua da arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak normalizatutako inguruneetan **txertatzen laguntzea**.

Heziketa konpentsatorioko programa denez, ingurune konpentsatzaileak eta normalizatuak sortu nahi ditu; horiei esker, adingabe eta gazteek eginkizun eta betebeharrak bete ahal izateko gaitasun eta jarrerak eskuratuko dituzte. Hezkuntzako prozesua eta bertan adingabe eta gazte batzuen kasuan gertatzen diren hausturak lantzen dira, eta ez emaitzak.

Kaleko hezitzaileek lortzen badute adingabe eta gazteak ekintzen eskaintzaren barruan modu baikorrean garatzea eta gizartekotzea, eta haien inguruan hautabidezko ingurune konpentsatzailea sortzea baina gizarteratzearen helburuak lortu gabe, eztabaidatu beharko da guzti hori ingurune normalizatu eta egokituak sustatzeko hezitzaileen gaikuntzaren baitan edo beste faktore batzuen baitan dagoen.

Baldin eta beste faktore batzuen baitan egonda, gizarteratzearen helburuak lortzen ez badira, arazoa izango da eskaintza egonkorren kostua nola gure gain hartu, edo baliabide eta inguruneetan nola eragingo dugun sistemen barruan arituz (ez sistematik kanpo). Horretaz nagusiki egin beharko da hausnarketa, Programaren ebaluaketak lau urte barru izango dituen emaitzen arabera.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Adingabe edo gazteak hezkuntzako baliabide ez formaletan txertatzeari dagokionez aipatu behar da, adingabe eta gazteak era baikorrean gizartekotzeko ez dela beharrezkoa baliabide mota horretan txertatzea. Oso maiz suertatzen da, era baikorrean gizartekotutako adingabe eta gazteek beren bizimodua eskola, familia eta kidekoen taldearen barruan soilik garatzea.

Egokia deritzogu astialdi, kirol, kultura, eta abarreko taldeetan txertatzea sustatzeari, baina ez da derrigorrezko baldintza. Baliabideetan txertatzea hezkuntzako eta gizartekotzeko bitartea da. Hezkuntzako guneak egotea eta azken helburua gizartekotzea izatea da garrantzitsuena.

Kontsortzioak sustatutako ekintzen oinarrian dagoen gizarte ekintzaren eredua zehaztean adierazi dugunez, gizarteratzeko bideak askotariko bilakatu eta adingabe edo gazte bakoitzak eta haien familiak beren bizitzari eman nahi dioten orientazioari egokitu behar dira.

Adingabe eta gazteen bideak askotarikoak izango dira ezinbestean, eta kaleko hezitzaileak erreferentzia figura izan behar du haietan guztietan.

Beste baliabide eta hezkuntzako eragile formal edo ez formal batzuekin (familia, eskola, hezkuntza ez formaleko baliabideak, e. a.) lankidetzan aritzea, elkarren arteko hezkuntzako ardura dela kontuan hartuta egin behar da. Gizarteratzea guztion helburua baita.

Esku hartzeak dituen helburu nagusietako bat, adingabe edo gazteak gaitasuna eskuratzea da (bereziki orokorrago bihur daitezkeenak), eta, argi adierazi dugunez, gaitasunak inguruneetan (kalea, eskola, familia, astialdiko taldea, lantokian, e. a.) eta eginkizun eta betebeharren barruan ikasi eta gauzatzen dira.

Horregatik, adingabe edo gazteak gaitasun eta betebeharrak eskuratu eta garatu ahal izateko inguruneak sortzea, eta adingabe edo gaztea normalizatutako inguruneetan txertatzea garrantzizkoa izango da esku hartzeko garaian; baina, inguruneak ugari dira eta ez dira derrigorrez adingabe edo gazte bakoitzaren kasuan berberak izan behar. Komenigarria da gaitasunak hainbat ingurutan garatzea eta inguru horiek normalizatuak izatea.

Adingabe eta gazteen bizimodua, gehienetan, ingurune hauetan garatzen da ezinbestez: familia, ikastetxea eta kidekoen taldean. Bizimodua egiten den ingurune guztietan adingabe edo gaztea gara dadin, adingabe edo gazte horrek betebehar edo eginkizun onartuak eta baikorrak betetzea bultzatu beharko genuke.

Kaleko hezitzaileek adingabe edo gazteen jarraipena egiten dute, eta banakako eta taldekako eskuartzea ixten dute hurrengoa egiaztatzen dutenean:

- a) adingabe edo gazteak inguruneetakoren batzuetan denbora nahiko luzean parte hartzen duela;
- b) inguruneen eskaintzaren barruan eskuratutako gaitasunak barneratu eta orokortu dituela;
- c) eta ingurune horietan ezagupen, gaitasun, jarrera eta interesak garatzen jarraitzen duela.

4.2.2. Hartzaileak

- **Pertsonak eta kolektiboak³**

- Arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak, Gipuzkoan bizi direnak, 0 eta 20 urte bitartekoak eta bereziki aurrenerabe eta nerabeak (11-17).
- Adingabe eta gazteen familiak.
- Egoitza sarean (Programa burutzen den udalerrietako egoitzak) eta instituzionalizatutako adingabeak, beren etxera epe laburrean itzuliko direnak – hezitzaile eta familiakoekin koordinatuta.
- Erreforma zentroetan dauden adingabeak, beren etxera epe laburrean itzuliko direnak, eta barneratzea ez diren hautabidezko neurri judizialak dituzten adingabeak –hezitzaile eta familiakoekin koordinatuta.

- **Baliabideak eta komunitatea orokorrean**

- Kultura zerbitzuak
- Hezkuntzako komunitatea
- Osasuneko lehen mailako arreta sarea
- Komunitatea orokorrean
- Gizarte zerbitzu berezituak

4.2.2.1. Adingabe eta familiak

Programa ez da udalerrietako adingabe eta gazte guztiei zuzenduko. Horrek ez du esan nahi arrisku egoeran ez dauden adingabe edo gazteek parte hartzerik ez dutenik kaleko hezitzaileek eskaintzen dituzten talde ekintzetan; alderantziz, komenigarria ere bada.

Arrisku eta moldagabezia egoera kontzeptuak, eta esku hartzeko lehentasunaren irizpideak aurkeztu ditugu dagoeneko.

Inguru Irekian esku hartzeko Programaren barruan, eta arrisku altu-ertain-baxu egoerez ulertzen duguna hobeto adieraztearren, hona hemen argibide batzuk:

- Arrisku altuko egoera da adingabe edo gaztea 1. egoeran egotea (adierazle sistema).
- Arrisku ertaineko egoera da adingabe edo gaztea funtsean 2. egoeran egotea (adierazle sistema).

³ Gizarte zerbitzuen eskuartzea, gizarte ekintzaren eredu zehatzaren ikuspuntutik, pertsona eta familiei zuzendu izan da azkenaldian. Beharrezkoa da kolektiboei (erabiltzaileak, interesdunak, komunitatea) zuzendutako eskuartzeari ekitea, gizarte sustapen eta lankidetzara, partehartzea, baliabideak sortzea, e. a. bultzatuz.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- Arrisku baxuko egoera da adingabe edo gaztea 2. egoeran egotea (adierazle sistema), soilik hipotesiari lotutako adierazleren bati dagokionez, eta txertatze arazorik inongo ingurunetan ez azaltzea.

Salbuespen gisa, herritar guztiei zuzendutako jarduerak edo proiektuak sustatu ahal izango dira Programatik, arrisku egoeran dauden zenbait adingabe eta gazteren ezaugarriei egokitutako eskaintza normalizatua sortzeko helburuaz, beti ere boluntarioei edo beste zerbitzu sistema batzuetako profesionalen epe laburrean ematea aurreikusten bada. Nolanahi ere, izaera egonkorreko berezko ekintzen eskaintza sortzea saihestu nahi dugu⁴.

Programaren hartzaileak arrisku ertain eta altuko egoeran dauden 11 eta 17 urte bitarteko aurreenerabe eta nerabeak izango dira bereziki.

Adin horretan hasten da kidekoen taldea indar handiagoa hartzen gizartekotze eragile gisa, adingabeak hasten dira kalean ordu asko ematen, eta nerabezaroaren krisiaren aurretik bizi zitzaketen arrisku egoerei erantzen zaizkie hezkuntzan, lan munduan, e. a. txertatzeko norik bere bideari jarraitzeko zailtasunak.

Salbuespenak salbuespen, hau da, Programatik esku hartzea arrazoizkotzat jotzen den kasuetan, 11 urtetik beherako adingabeek ez dute kalean garrantzizko presentziarik izango; dena den, esku hartu behar den 11 urtetik gorako kasuetan ere gerta daiteke hori.

Edonola ere, eta beharrezkotzat jotzen den arreta goiztiarreko programa egiten ez den bitartean, **gomendagarria da** kaleko hezitzaileek aldeztu aurretik esku hartzea justifikatutako eta isolatutako kasuetan, eskuartzea kalean garatzen ez bada ere, berehalako erantzunak eskatzen dituzten egoera larriak erantzuteko.

Udalerri bakoitzean, kasu zehatzetan, gizarte langileak eta Gizarte Laneko Unitateko (GLU) kaleko hezitzaileak aztertuko dute esku hartzea arrazoizkoa den eta zein izan daitekeen esku hartzeko estrategiarik egokiena.

Udalerrian isolatutako kasurik ez, baizik eta kopuru handia bada, hezitzaile taldeak Programaren arduradunarekin eta Gizarte Zerbitzuko Departamentuarekin batera erabakiko du esku hartu behar den, esku hartzeko estrategia egokienak zein izan daitezkeen, aurreenerabe eta nerabeekin eta kalearen esparruan egin beharreko lanean egon daitezkeen eraginak, edo arreta goiztiarreko programaren bat martxan jartzeko eskaera egin behar den, 11 urtetik beherako arteen hautemandako arrisku egoeren arabera.

Kaleko hezitzailearen lana kalean egin behar da. Oso txikiak diren kasuetan esku hartzea familia hezitzailearen figuratik proposatu beharko litzateke, beharbada.

⁴ Eskaintza egonkorra izan daiteke, baina ez adingabe edo gazte talde berarentzat. Hezitzaileek kudeatutako eskaintza izaera egonkorrekoa izateaz gain, herritar guztiei zuzendua bada (normalizatua bada) eta arrisku egoeran dauden adingabe/gazteen ezaugarriei egokiturik ez badago, lortua genuke saihestu nahi duguna, hain zuzen ere. Eskaintza erabiltzen duten adingabe/gazteak kontuan hartuta, berezko eskaintzak ez du egonkorra izan behar, baizik, eta, ahal delarik, arrisku egoeran ez dauden adingabe/gazteak edo arrisku maila ezberdinak dituztenak jardueretan sartzeko gai, eskaintza adingabe/gazte guztiei zuzendua ez bada ere.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Gauza bera esan daiteke 17 eta 20 urte bitarteko⁵ gazteei dagokienez; kasu horretan, arrisku egoeran dauden gazteei zuzendutako txertatze soziokulturaleko programak, emantzipazioa, e. a., eskatuz.

Hala eta guztiz ere, ez litzaioke ekin behar 19 urte betetako gazteei zuzendutako esku hartzeari, baldin eta, oso arrazoizkoa izanik ere, esku hartzeari jarraipena nork emango dion aurreikusten ez bada.

Programa gauzatzen den lurraldeko babes zentroetan bizi diren adingabeak ere programaren hartzaileak dira. Arrisku egoeran dauden adingabeak izaten dira, eguneroko bizimodua zonaldeko zentro publikoetan egiten dutenak; batzuetan, arrisku egoeran dauden eta haien etxeetan bizi diren adingabe edo gazteekin kalean egoten dira, hezitzaileek haiekin jarduten dute, komunitateko hezkuntzako baliabideetan eta baliabide soziokulturaletan txertatu beharra izaten dute,

Moldagabezia prozesuan (ebasketa, espediente irekia Adingabeen Babes Auzitegian edo Epaitegian, ...) hasiak diren adingabe edo gazteei ere zuzenduta dago Programa, beti hala ere, bergizarteratzearen ikuspuntutik edo internatzea helburu ez duten hautabidezko neurrien ikuspuntutik; adingabeek, gainera, ez dute egon behar administrazio publikoek haien tutoretza eskatzeko moduko egoeran (tratu txarrak, abandonua, ...).

Azken kasu horretan, Programak hautemate eta deribatze lanak soilik egingo ditu.

Gehienetan familia hezitzaileak esku hartzea beharrezkoa izango da, adingabe/gaztea etxera itzultzea bultzatzen denean, edo internatzea helburu ez duten hautabidezko neurriak betetzean.

Dena den, Programa ez zaio bereziki zuzendu behar gizarte zerbitzu berezietatik deribatutako adingabe edo gazteen arretari.

Kaleko hezitzaileak egin beharreko lana, adingabe eta gazteei eta, era berean, maila lokalean egokitutako baliabideak sustatzeari zuzendua izango da. Babes edo erreforma sareko adingabeei, edo instituzioetatik kanpo dauden gazteei zuzendutako eskuartzeak ikuspuntu bera eduki behar du, eta adingabe eta gazte horiek talde naturaletan eta egokitutako baliabideetan txertatzea bultzatu behar du.

Gizarte zerbitzu berezituaren saretik arreta eskainitako adingabe edo gazteekin lan egiteak izaera egonkorra duten eta funtsean banakakoak diren berezko ekintzen eskaintza garatzea badakar, hurrengo pausua adingabe eta gazteei zuzendutako eskuartzearen fase hori gainditzeko beharrezko diren tresnak edo baliabide espezifikoak zehaztea litzateke.

16 urtetik aurrera eta 20 urte bitarteko gazteekin esku hartzea hurrengo ekintzak garatzera zuzenduta egongo da:

- a) lan hastapena, gizarte bermeko programetan sartzea, lanbide hastapen zentroak, edo prestakuntza okupazional edo lanbide prestakuntzako zentroak;
- b) lana modu eraginkorrean bilatzea;

⁵ (Arrisku egoeran dauden) adingabe eta gazteei zuzendutako prestakuntza okupazionalaren, lanbide hastapenaren, eta bestelako programen eskaintza 17 eta 19 urte bitartekoentzat egiten da. 19 edo 20 urte dutenean, gazte horietako batzuek lehenengo lanpostua eskuratzen dute.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- c) aisiaren eta astialdiaren autogestioa edo normalizatutako baliabideetan sartzea finkatzea;
- d) lanekoa ez den beste arlo batzuetan helduen betebeharrak betetzeko gaitasunak eskuratzea;
- e) prestakuntza okupazionala baino areagokoa den kultura eskuratzea;
- f) eta beste

Helburu horiek 16 urtetik gorakoentzat jartzeak eskatzen du, adingabeek aldezturik eskuratuak izatea gizarteratzeko oinarritzako diren gaitasunei lotutako helburuak.

Arazoa sortuko da, "oinarritzako" helburu horiek 16/17 urte bitartean lortu ez direnean, edo lehendik eskuartzerik zuzendu ez zaien nerabeengan arrisku edo moldagabezia egoerak aurkitzen badira, edo banaka esku hartzerik egon ez bada.

Programa Eredua gomendatzen du eskuartze mota horiek ez egitea, eta egoera horretan adingabe edo gazte asko baleude, erantzunen bat sustatzea.

Kontuan hartu behar da, aisialdi eta astialdi arloan, adibidez, 15 urtetik gorakoentzat dagoen eskaintza oso eskasa dela.

Horrelako mekanismoak sortzen ez bada, are zailagoa izango da ezaugarri horiek dituzten adingabe edo gazteekin esku hartzea, edo babes edo erreforma zentroetan barneraturik egon direnekin, edo desinstituzionalizaturik daudenekin, edo internatzea ez den hautabidezko neurria ezarrita dutenekin; izan ere, kasu horietan guztietan beharrezkoa izango baita gizarteratzeko oinarritzako alderdiak luze lantzea.

Horregatik, lehentasuna eman behar zaio hautabidezko eskaintza konpentsatzaileak garatzeari –ez soilik aisialdi eta astialdikoak-, zenbait kasutan egokitze gaitasuna duten nerabe eta gazteei zuzenduak, baita arrisku altuko edo moldagabezia egoeran dauden adingabe eta gazteei ere.

Azkenik, hezitzaileek –osasun mentalari begira- orekatzen saiatu beharko lukete, banakako proiektuen barruan, moldagabezia eta arrisku altu eta ertaineko egoeran dauden adingabe eta gazteekin esku hartzea eta, taldekako proiektuen barruan, egoera horietan dauden adingabe eta gazteekin, edo arrisku baxuko egoeran daudenekin, edo arrisku egoeran ez daudenekin esku hartzea.

4.2.2.2. Baliabideak eta Komunitatea

Programak hezkuntza ez formaleko izaera duten edo hezkuntzako programak dituzten komunitateko eta maila lokaleko baliabide publiko eta pribatuak hartzen ditu, eta modu horretan hezkuntza osoa den eta era koordinatuan egin den eskuartzea sustatzen da.

Departamentuen arteko koordinazioa (bereziki gizarte zerbitzu, kultura eta gazteria departamentuen artean), eta erakundeen artekoa (maila lokaleko zerbitzu sistemen artean, bereziki) ezinbesteko baldintzak dira Gizartean eta Hezkuntzan esku hartze Programak arrakasta izan dezan, lurraldean hezkuntza jarduten dutenen lanaren lotura bermatzen baitu.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Ildo horretan, Kontsortzioaren asmoa da zerbitzu sistemen eta hezkuntzako eragileen arteko koordinazioa maila lokalean indartzea Inguru Irekiko Hezkuntzako Planaren bitartez, eta hurrengo puntuak sustatuz:

- a) gainontzeko zerbitzu sistemek Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren ebaluaketan eta orientazioan parte hartzea;
- b) proiektuen eta programen diseinua elkarlanean egitea (sistemen artean);
- c) hautemate eta deribatze sistema integratuak garatzea;
- d) arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin egin beharreko estrategiei buruz, elkarren artean erabakitze mekanismoak jartzea;
- e) zerbitzu sistemetan ari diren eragile guztientzako prestakuntzari ekitea.

Nolanahi ere, departamentu eta zerbitzu sistemekin koordinazioa eta elkarlana behetik bultzatu behar dira, proiektuetan oinarrituta, eta hortik, elkarlanean aritzeko alderdiak zabaldu. Denboraren poderioz, behin elkarlana finkatuta, haur, nerabe, gazte, eta abarrei zuzendutako udal planak garatu ahal izango dira.

Gaur egun, kaleko hezitzaileek hainbat koordinazio taldetan parte hartzen dute, eta, hala ere, elkarlaneko esperientzia gutxi daude (elkarlanean egindako proiektuak).

Jarraian, Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren koordinazio alderdi nagusietako batzuk zehaztuko ditugu:

Udaleko Kultura Departamentua

Boluntarioak eta elkartegintza orokorrean, aisialdi eta astialdiko proiektuak, e. a. sustatzea kultur sistemaren ardura dela uste dugu.

Gizarte eta astialdiko boluntarioen kasuan, hurrengo da kaleko hezitzaileek beren gain hartu beharko luketen lana: prestakuntza espezifikokoak, eta talde eta boluntarioei laguntzea arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak baliabideetan txertatzen (baliabideen egokitzapena edo egokitutako baliabideak sortzea, igarotzeko proiektuen barruan).

Kultura Departamentuak esku hartzeko garaian, interesgarria litzateke hurrengo arloak sustatzea:

- a) arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak era baikorrean diskriminatzeko neurriak hartzea;
- b) oztopo ekonomikoak kentzea;
- c) baliabideak egokitzea;
- d) boluntarioak eta elkartegintza bultzatzeko ekintzak eta arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen premiak lotzea;
- e) Kultura alorrean egin litezkeen gazteen autogestio proiektuak;
- f) eta abar.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Udaleko Gazteria Departamentua

Gazteria departamentuei dagokienez, departamentuok arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin esku hartzeari lehentasuna ematen dioten neurrian, oso koordinazio estua egin beharko litzateke, helburu bera baitugu, eta, gizarteratzeaz hitz egin beharrean, gazteen emantzipazioaz hitz egin beharko litzateke gazteria departamentuetan.

Hortaz, gazteria departamentuetako baliabideak gizarte zerbitzuko sistemakoei erantsi beharko litzaizkieke, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin esku hartzeari dagokionez.

Hezkuntza sistema

Hezkuntza sistemaren kasuan, harremana hezkuntzako komunitate osora zabaltzeko behar da, eta batez ere hurrengo profesionalekin mantendu:

- Ikastetxea: zuzendaritza taldea, tutoreak, irakasle laguntzaileak; baina, nagusiki aholkularia Lehen Hezkuntzan, eta orientatzailea Bigarren Hezkuntzan.
- Eskualdeko baliabideak (Pedagogia Aholkularitza Zentroa): zuzendaritza, zeharkako alorretako aholkulariak, orientazio zerbitzua; baina, zehatzago, Lanbide Anitzeko Taldea, eta bertan, gizarte egokitzapenerako teknikaria.

Gazteek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondoko ikasketekin jarraitu ez badute, Lanbide Hastapeneko Zentroekin, Gizarte Bermeko Programekin, Lantegi Eskola, edo prestakuntza eta enpleguko udal programekin harremanetan jartzea dago.

Kaleko hezitzaileek eskolako jardura osatu ahal izango dute, eskolaz kanpoko ordutegian egingo diren hezkuntza ez formaleko proiektuen bidez, eskola ordutegian lantzen ari diren helburuak indartzeko; horrela, informazioa trukatzeko, jokabidezko jarraibideak adostea eta, baita ere, hezkuntza sistemako profesionalekin batera, osoko programa bat diseinatzea eta baloratzea izango dute.

Eskola laguntzako proiektuak elkarlanean egindako beste proiektu baten osagarri, edo eskolaratzeko programa osagarri baten euskarri partziala izan litezke.

Dena den, ikastetxearen barruan eskolaz kanpoko jarduerak egiteak zentzua izango du, baldin eta kudeaketa talde boluntario edo erdi profesionalizatuari ematea aurreikusita badago hasieratik, eta, ahal bada, hezkuntzako komunitatearen partehartzearekin (gurasoen elkarteak).

Kaleko hezitzaileek ez dute ikas jarduerarik bultzatu behar gelan edo eskolako ordutegian.

Osasuneko lehen mailako arreta sarea

Osasun zentroekin (anbulatorioak, modulu psikosozialak, ...) egiten den elkarlana ondoko puntuei lotuta dago:

- Hautemate eta deribatze sistemen formalizazioari orokorrean, eta tratu txar eta abandonu egoerei zehazki.
- Adingabe eta gazteen gizarteratzean, eta guraso edo zaintzaile nagusien zaintzeko gaikuntzan eragina izan dezaketen minusbalotasun eta gaixotasunak ebaluatzeari.
- Osasun heziketako proiektuetarako lankidetzari.

Kaleko hezitzaileek osasun heziketako proiektuak egin ahal izango dituzte osasun sistemakoak ez diren baliabideetan, onena ez izan arren, edo elkarlanean diseinatutako hezkuntzako ekintzak bere gain hartu ahal izango dituzte; baina, ez lukete horrelako proiekturik egin behar osasuneko lehenengo mailako arreta sarearekin lankidetzan ez bada. Orokorrean, sistema, baliabide eta eragile ezberdinen ardurarik ez hartzen saiatu beharko da.

Gizarte zerbitzu berezituak

Gizarte zerbitzu berezituen kasuan aurreikusitako eskuartzea hezitzaile bakoitzak inguru irekian egingo duen eskuartzeari lotuta dago, eta babes sareko etxebizitzetako edo erreforma zentroetako hezitzaileek egindako eskuartzearekin koordinatuta.

Era berean, udal kudeaketako zerbitzu berezituari lotutako eskuartzerik planteatu daiteke (lanbide hastapeneko zentroak, larrialdietarako etxebizitzak, e. a).

Sistema judiziala

Neurri judizialak dituzten adingabe edo gazteekin esku hartzeko, sistema judizialarekin elkarlanean jardun behar da, ordezkariarekin zehazki, eta elkarlan horren kontzeptua zehaztu eta garatu behar da.